



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

III. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2019ko maiatzaren 27, 28 eta 29
Baiona, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

Hitz barneko kode alternantzia
euskara-gaztelaniaren kasuan:
ezaugarri fonologikoen azterketa

Arrate Isasi-Isasmendi

76-82 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iii.01.10>



Hitz barneko kode alternantzia euskara-gaztelaniaren kasuan: ezaugarri fonologikoen azterketa

Isasi-Isasmendi Landaluze, Arrate

Euskal Herriko Unibertsitatea

aisasiisasmend001@ikasle.ehu.eus

Laburpena

Azkenaldian kode alternantzia ikertu duten hainbat lanen arabera, sistema fonologiko bakarra erabili dezakegu hiztunok hitz bakoitzaren errealizazio fonetikoan, eta ondorioz ezinezkoa da hitz bakarrean hizkuntza ezberdinetako elementuak txertatzea (MacSwan, 2005; MacSwan eta Colina, 2014). Alabaina, euskara eta gaztelaniaren arteko kode alternantzia hitz barnean ere ematen da, eta hori dela eta, sistema fonologikoak ez daudela guztiz bereizita eta sistemen artean interakzioa egon daitekeela proposatzen dugu. Honekin bat, erakutsi nahi dugu kode alternantziaren azterketa baliogarria dela hizkuntzaren ezaugarri orokorrak ikertzeko.

Hitz gakoak: kode alternantzia, hitz-barneko alternantzia, PF interfazea, egokitzapen fonologikoa

Abstract

According to recent approaches to code-switching, we can only use one phonological system in the phonetic mapping of each word, and therefore it is impossible to integrate elements from different languages within a word (MacSwan, 2005; MacSwan and Colina, 2014). However, code-switching between Basque and Spanish is also found in word internal position. Because of that, we propose that phonological systems may not be completely separate and that there may be a certain degree of interaction between them. In doing so, we also aim to show that the study of code-switching is relevant for investigating general properties of languages.

Keywords: code-switching, intra-sentential code-switching, PF interface, phonological adaptation

1. Sarrera eta motibazioa

Kode alternantziak, hau da, bi hizkuntza edo gehiagoren erabilerak hizketa jardunean, hizkuntzalari askoren arreta piztu du azken hamarkadetan. Kode alternantzia (KA, hemendik aurrera) aztergai zuten lehen lan ezagunak 1980 hasieran agertu ziren (Poplack, 1980; Polack eta Sankoff, 1981) eta ingelesa eta gaztelania zituzten ardatz kasu gehienetan. Hasierako azterlan hauetan alternantzia patrioiak deskribatu eta hizkuntza aldaketa posible ez zen testuinguruak ere aztertu zituzten, corpusetan agertzen ziren egiturak azaltzeko “mugak” formulatu. Ondorengo urteetan, KA beste hizkuntza pare batzuetan aztertu dute hainbat autorek (Joshi, 1985; Di Sciullo et al., 1986; Mahootian, 1993; Myers-Scotton, 2001) eta muga berriak proposatu dira KA gidatzen duten patrioi orokorrak azaltzeko, hau da, edozein hizkuntza paretan gertatzen diren alternantzia kasuak azaltzeko.

Alabaina, orain arte proposatu diren muga gehientsuenak ez dira gai izan kasu guztiak azaltzeko hizkuntza pare berriak ikerketa eremura sartu direnean, eta hau dela eta, mugetan oinarritutako ikuspuntua alde batera utzi dute hainbat autorek. Ordez, proposamen berrietan programa minimalistaren (Chomsky, 1995) ideiak baliatu dituzte hizkuntzalari batzuek azken urteetan KA azaltzeko (Mahootian, 1993; Chan, 2003). Autore hauek KA hizkuntza gaitasunaren marko barruan ulertu behar dela aldarrikatu dute. Ondorioz, alternantziaren mugak gaitasun unibertsal horren mugak besterik ez lirateke, eta zehatzago, fonologiaren errealizazioarekin lotutako mugak.

Testuinguru honetan, euskara eta gaztelaniaren arteko KA aztertzea bereziki interesgarria eta egokia iruditzen zaigu bi hizkuntzen ezaugarri linguistikoak kontuan hartuta. Alde batetik, morfosintaxiaren aldetik oso diferenteak dira: euskara buru-azkena eta ergatiboa da eta kasuak eta postposizioak ditu, eta gaztelania aldiz hizkuntza buru-lehena, nominatiboa eta preposizioduna da. Bestalde, euskara eta gaztelaniaren sistema fonologikoak oso antzerakoak dira, tartean bost unitateko bokal sistema eta kontsonante asko partekatzen dituztelarik. Beraz, kasu hau bereziki aproposa da fonologiari lotutako alternantzia mugak proposatzen dituzten hipotesiak frogatzeko. Orain arte izan dira euskara eta gaztelaniaren arteko KA aztertu duten hainbat lan baliotsu (Epelde eta Oyharçabal, 2010; Ezeizabarrena, 2015; Iriondo, 2017), baina aipaturiko alderdi fonologikoa eta honi lotutako mugak ez dira aztertuak izan oraindik.

Ondorengo atalean, KA azaltzeko azken urteotan garatu den teoria baten azalpen labur bat emango da, programa minimalistaren ideietatik eraikia dena. Horrekin bat, teoria honetan zehazten diren hipotesiak eta hipotesi haueetatik sortzen diren KAren inguruko aurreikuspen unibertsalak zeintzuk diren zehaztuko dugu. Honi lotuta, aurreikuspen horiek euskara eta gaztelaniaren arteko alternantziari aplikatuko dizkiogu eta hipotesi horiek zuzenak izanez gero espero beharko genituzkeen emaitzak zeintzuk lirakeen zehaztuko dugu. 3. atalean datuak biltzeko metodologia azalduko dugu eta ondoren datuak aztertuko ditugu. Azkenik, lortutako emaitza horiek interpretatuko ditugu aipatutako ikuspegi minimalistak kontuan izanda.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

2.1. MacSwan: PF Interfaze Baldintza

MacSwanek KAn berezko mugarik ez dagoela proposatzen du hizkuntza gaitasun orokorrar haratago (ikus Chan (2003) eta Mahootian (1993) ere ildo bereko beste proposamen batzuetarako). Hartara, mugak oinarri dituzten aurretiko teorien laburpen eta kritika bat egiten du MacSwanek (2005), hainbat autorek proposatu dituzten eta ondoren baztertuak izan diren mugak aipatuz.

Hori dela eta, programa minimalistaren hainbat ideietatik abiatuz KAren teoria propioa gauzatzen du autore honek. Berau azaltzeko, gogoratu behar da aurrenik zein den programa minimalistak proposatzen duen hizkuntzaren deribazio prozesua. Minimalismoaren marko teorikoaren baitan, hizkuntzaren deribazioa gauzatzeko lexikoko elementuak numerazioan sartzen dira eta ondoren, Spell-Out izeneko pausuan, deribazioa banatu egiten da bitan. Batetik, PF izeneko interfazean (ingelesko *phonetic form*-etik eratorria) hizkuntzaren forma hautemangarria islatzen da, hau da, material linguistikoak forma akustikoa eta hautemangarria eskuratzen du. Bestetik, LF interfazean (*logical form*-etik) forma kontzeptuala gauzatzen da sistema semantikoaren bitartez. Marko hau baliatuz, MacSwanek azaltzen du KAn hizkuntza diferentetako elementu lexikoak konputazio sisteman barneratzen direla elebazarretan hizkuntza bakarreko lexikoak egiten duen bezalaxe. Alabaina, Spell Out-ean deribazioa banatzen denean, ezaugarri egokiek forma fonetikoa hartzen dute PF interfazean, eta elementu lexiko bakoitza dagokion hizkuntzako sistema fonologikora bideratzen da.

Ondorioz, hizkuntza ezberdinetako morfemak batuta sortutako hitz konplexuak ezin dira gauzatu, hauen ezaugarriak ezin baitira bidali aldi berean bi sistema fonologikotara. Ideia hau PF Interfaze Baldintza deituriko teoreman, (PFIC ingelesez eta hemendik aurrera), jasotzen dute MacSwanek eta Colinak formalki. Teorema honen arabera, “elebidunek modu bereizian kapsulatutako sistema fonologiko bana dute beren erreperatorioko hizkuntza bakoitzerako” (2014) eta buru sintaktiko bakoitzak forma fonetikoa hartu behar duenez Spell Out-ean, “buruen (hitzen) arteko muga kokatzen da KA gauzatzeko aukera minimoa” (2014).

Beraz, MacSwanek eta Colinak mugetan oinarritutako aurreko autoreen ikuspegia baztertzen dute baina bestalde KA posible den testuinguruak definitzeko muga berri bat formulatzen dute, kasu honetan hizkuntzaren deribazio ezaugarri unibertsaleetatik abiatuz: KA ezin da gauzatu sintaktikoki konplexuak diren hitzen barnean.

2.2. Ikerketa helburuak. Euskara-gaztelania KA ikuspegi fonologikotik

Aurreko lerroetan aipatutako ikerketa ildoan sakontze aldera, lan honek euskara eta gaztelaniaren arteko KAren alderdi fonologikoa aztertzea dauka helburu. Azterketa honen bitartez euskara eta gaztelania nahasten dituzten hitzunek egiten dituzten alternantzia motak ezagutu nahi ditugu, eta modu zehatzago batean, MacSwan eta Colinak proposatutako PFIC hipotesiaren aurreikuspenak betetzen diren ikusi nahi dugu.

Orain arte azaldu bezala, aipatutako hipotesiaren arabera KA ez da posible sintaktikoki konplexuak diren hitzen barnean (MacSwan eta Colina, 2014). Hori horrelaxe litzateke hizkuntzek beren PF propioa edo behintzat sistema fonologiko bereiziak dituztelako PFan, eta materiala horietako batera ala bestera bidali behar delako. Euskara eta gaztelaniaren arteko KAri erreparatuz, hipotesi honen arabera posible litzateke hitz barnean hizkuntza bietako elementuak aurkitzea baldin eta sistema fonologiko bakarraren bitartez islatzeko moduko egiturak izanez gero. Hau fenomeno oso arrunta litzateke euskara eta gaztelaniaren kasuan, bi sistema fonologikoek ezaugarri komun asko baitituzte.

Bestalde, KA ez litzateke posible izango hitz barnean bi hizkuntzek partekatzen ez dituzten ezaugarri fonologikoen kasuan. Beste era batera esanda, PFIC hipotesiaren arabera gaztelaniazko ezaugarri fonologiko partikularrak dituzten hitzak ezingo lirakeke euskarazko material flexiboarekin

konbinatu euskal fonologiara egokitu ezean. Fonema mailan, aurreikuspen hau betetzen den ikusteko frikari horzkari ahoskabea, /θ/, erabil daiteke, gaztelaniaren kontsonanteen artean aurkitzen dena baina ez euskararen sisteman, tradizionalki behintzat (Oñederra, 2004). Beraz, aurreikusten dugu /θ/ fonema daroaten alternantzia kasuak ez direla hitz barneko posizioetan aurkituko. Prosodiari dagokionez, erdialdeko euskararen ezaugarri nagusienetakoa da azentua hasierako-osteko posizioan (bigarren silaban) izatea (Hualde, 2003), gazteleraz ohikoa den azken-aurreko azentu posizioaren ordez. Ondorioz, aurreikusten dugu gaztelaniazko azken-aurreko azentuera jarraitzen duten alternantzia kasuak ez direla hitz barnean aurkituko euskarazko flexioarekin konbinatuta.

3. Ikerketaren muina

3.1. Metodologia

Euskara eta gaztelaniaren arteko kontaktua ikertzeko corpus bat sortu da, hartarako euskarazko komunikabideetako saioetako 20 orduren transkribapena eginez. 20 ordu horietatik, 10 ordu Etb1 kateko Gure Kasa programari dagozkio, eta beste 10 orduak irratsaioetatik hartuak dira, 6 ordu Dida saiotik eta 4 Gaztea Box saiotik, biak Gaztea irrati katekoak. Esatari ofizialen eta kolaboratzaile ohikoen jarduna bakarrik transkribatu da, horrela hiztun profil bateratua sortzeko: guztiak dira gaitasun handiko euskal hiztunak, euren jardunean erakusten duten jarioak eta zuzentasunak adierazten duen bezala. Gaztelaniari dagokionez, ez daukagu baliabide zuzenik hizkuntza honetan duten gaitasunari buruz jakiteko, baina guztiak izanik hegoaldeko euskal herritarrak eta are komunikazio arloko profesionalak, baieztatu dezakegu gaitasun handia dutela hizkuntza honetan ere. Irrati eta telebista saioetako elkarrizketak Muysken-en (2000) KAren taxonomiari jarraituz transkribatu eta etiketatu dira sareko datu base batean, zeina laster publikoki eskuragai izango den internet bidez.

Aipatutako hiru programak gazteei zuzenduak dira eta era berean gazteak dira aurkezle eta esatari gehienak. Honi lotuta, erabiltzen den hizkera informala, naturala eta gazte jendeari lotutakoa da hein handi batean, eta beraz KA ugaria da hizketa jardunean, batez ere gaztelania eta ingelesarekin. Edozein kasutan, KA ez da maiztasun eta forma berberekin ematen esatari guztien kasuan; komunikabide publikoak izanik, esatari batzuk euskara hutseko jardunari lotuta daude, eta beste batzuek hizkuntzak nahasteko askatasun osoa daukate saioan duten pertsonaiaren rolaren arabera, Elorduik aztertu bezala (2016).

Edonola ere, lan honetan ez da kontuan izan aztertutako KA kasuen egilea zein den eta kasu guztiak ondo eraikitako alternantzia adibide naturalizat hartu dira, esatari guztiak baitira gaitasun handiko euskara-gaztelania elebidunak. Hala ere, corpusean aurkitutako alternantzia kasu eztabaidagarri edo nabarmenak onargarriak direla ziurtatu dugu. Horretarako, 10 gazte aukeratu dira, guztiak euskara-gaztelania elebidun goiztiarrak (5 urte baino lehen bi hizkuntzak jasotakoak) eta bi hizkuntzetan antzeko gaitasuna dutenak, autoebaluazioen arabera. Horrez gain, KA egunerokotasunean praktikatzen duten gazteak dira, eta beraz alternantzia adibide posible eta ez posibleen inguruko intuizio sendoak dituzte. 10 pertsona hauei corpusean aurkitutako adibideak onargarriak eta naturalak diren galdetu diegu eta horretarako 1 (inondik ere onargarria) eta 7 (guztiz onargarria) arteko eskala batean ebaluatu dute audio alternantzia kasu bakoitza. Audio bidez eta bere testuinguruan eskaini zaie kasu bakoitza, hau da, hitza txertatzen den esaldi osoa izan dute entzungai.

Beraz, corpuseko datuak onargarritasun epaiekin osatu dira hipotesiei begira interesgarriak diren alternantzia kasuak aztertzeko. Zehazki, euskarak eta gaztelaniak partekatzen ez dituzten ezaugarri fonologiko bi, /θ/ fonema eta hitz azentua, hitz barneko alternantzia adibideetan bilatu ditugu, kasu hauek ematen diren ala ez ikusteko.

3.2. Emaitzak

- /θ/ fonema hitz-barneko KA kasuetan

Hainbat hitz barneko alternantzia kasutan aurkitu dugu /θ/ fonema gaztelaniazko hitz erroaren eta euskal flexioaren konbinaketaren ondorioz. Hauen artean izenak (1-3), adjektiboak (4-6) eta aditzak (7-8) aurkitu ditugu, besteak beste:

- (1) Ementxe jarriko dugu oraintxe bertan Rosalíaren kantu birala, bai bideoagatik eta baita *temazoagatik*
- (2) *Neceserra sin falta.*
- (3) Kasu onetan txakurrak sartu dio *picotazoa* oillarrari.

- (4) Bai, frogatuta dago. *Científico*.
- (5) Aber txikis, ni naz oso *polifacetiki* eta dana kontrolaten dot
- (6) Ta oain geoz ta obeto, o sea eztakit *concienteago*
- (7) Ze zabize, neuri *vacilaten*
- (8) Joe *emocionaten* naz apur bet e

Alternantzia kasu hauekin batera, kontrako adibideak ere aurkitu ditugu, hau da, /θ/ fonema euskal fonologiara egokituta duten adibideak eta ondorioz /s/ edo /ʃ/ dutenak. Konparaketa egite aldera, aurreko zerrendako (2) eta (8) adibideak ondorengo (9-14) kasuekin erkatu daitezke:

- (9) Neure aita *emoziona* itxen zan
- (10) Egiten da *emozionatu*
- (11) *Emoziona* ba in naz baie ez olan negar
- (12) Mai Alirirekin gaur Didan, nola egin, nola osatu udako *nezeserra*
- (13) Bale, orduan *nezeserra* aldatu
- (14) Ori, sartu *nezeserrean*, Marta Elvira

Azken zerrenda honetako adibideak askoz ere ohikoak dira corpusean, hau da, ohikoena da corpusean gaztelaniaren sistema fonologikoko fonemaren ordezkari euskarazko bat erabiltzea. Honek pentsarazi dezake (1-8) kasuak ezohikoak eta gaizki formatuak direla, baina onargarritasun epaietan guztiak onargarriztat eta naturalizat jo dituzte hiztunek.

- Hitz azentua hitz-barneko KA kasuetan

Bestalde, gaztelaniaren azentu patroia jarraitzen duten hainbat hitz-barneko alternantzia kasu aurkitu ditugu, hau da, azken-aurreko silaban azentua eta euskal flexioa konbinatzen duten hitzak. Kasu honetan, alde batera utzi ditugu azterketarako Bizkaia iparraldeko euskalkiaren hiztun diren esatariak; erdialdeko euskara hitz egiten duten esatarien jardunean zentratu dugu azterketa, azken hauen azentu patroia baita gaztelaniazkoarekin konparatu nahi duguna.

- (15) Eta aal bada, posible bada, apurtxo bat *pilloté*oan ere aritzea.
- (16) Ja dagoeneko afalduta, traste guztiak *lavavajillasean* sartuta
- (17) Ori da nik uste dut nire bizitzan daukadan *interrogánte*rik andiena
- (18) Antton, baiño ola *torniqué*tea ingo zu.
- (19) Ori da, ta baiña kontuz *posturé*oarekin ze momentu batetan.
- (20) Jugosito *jugosí*toa.
- (21) Die *supermáj*ok
- (22) Gai super *imaginát*ivoa, tío.

Horrela, alternatutako izen (15-19) eta adjektibo (20-22) hauetan azken-aurreko silaban mantendu da azentua erro lexikoan, gaztelaniazko patroiarri jarraituz. Postposizioen bidez euskarazko flexio materiala gehitzeak ez du aldatu jatorrizko azentu posizioa bi norabideetako batean ere: azentua ez da hasiera-osteko silaba posizioa aldatu euskararen fonologiara egokituz (**pillóte*oan), baina bestalde, gaztelaniazko azken-aurreko azentua ez da produktiboa izan flexio materiala gehitu zaionean, patroiak ez baititu euskarazko silabak kontatu azken-aurreko azentua ezartzeko (**pillote*oan). Hala ere, corpusean aurkitzen diren hitz barneko alternantzia kasuetan patroirik ohikoena hasiera-osteko silaba azentua da:

- (23) *Pingán*illoak eta oriek guztiak jarri dira modan, erabat kezkatuta daude.
- (24) *Remáng*atuta gaiñera, Cristiano estiloan.
- (25) Esaten da filtrau in bi zala, o sea ja prensak bazakixela, ta orduan *komún*ikaua in bi zaiuen bai ala ba
- (26) Bai, *pantálon*etia ochentero, fuboleko pantaloneta orrek motzak zianak

(27) Orregatik esaten nizuen, ez, kontu, o sea, *desénmascaratu* ditzagun

(28) Ez, benetan, ori begira, hater izatearena bezela, ori da *postúreoa*

(29) Julen, ez, bat, ez bi, zazpi errezeta *preténditzen* dute egitea

(30) Orduan, ori bukatzen denean bilduko dira, egingo dute, ori *asésoreekin* beste billera bat

Onargarritasun epaietan, /θ/ fonemaren kasuan baino onargarritasun maila baxuagoa eman zaie (15-22) esaldiei. Hitzunek ez dituzte guztiz onargarrizat jo esaldi batzuk, batez ere (15) eta (19) esaldien kasuan eta horrez gain, esaldi guztietan ia hitzun guztiak euskarazko hitz azentua erabiltzeko joera adierazi dute. Hala ere, orokorrean esaldiak posibletzat jo dituzte.

4. Ondorioak

Emaitza hauek ez dituzte MacSwanen hipotesiei jarraituz egindako aurreikuspenak bete. Aztertutako bi ezaugarriak, /θ/ fonema eta hitz azentua, PFIC hipotesiak onartzen ez dituen alternantzia posizioetan aurkitu ditugu. Nahiz eta euskal fonologiari dagozkien ezaugarriekin ohikoagoak eta onargarriagoak diren kasu gehienetan aztertutako adibideak, posible da euskarazko flexioa eta gaztelaniarazko ezaugarri fonologikoak dituen erroa konbinatzea hitz barneko posizioetan.

Hain zuzen ere, izan dira lehenago hainbat lan aipatutako bi teoriak baztertzen dituzten alternantzia motak aurkitu dituztenak, tartean swahili-ingelesa eta kroaziera-ingelesa hizkuntza pareetako KA aztertu duten hainbat lan (Jake et al., 2002). Alabaina, MacSwan eta Colinaren lanean ustezko kontra-adibide horiek tratatzen dira eta “adibide morfologiko hauek sintagma mailako hizki moduan” (2014) analizatu daitezkeela argudiatzen da. Ondorioz, ez lirateke egiazki hitz barneko KA kasuak izango. Honi jarraituz, lan honetan aurkeztutako hainbat adibide modu horretan aztertu litezke akaso PFIC hipotesia aplikatzen ez zaiela argudiatu aldera. Ordea, ez dirudi sintagma mailako hizki izaera hori ondorengo kasuak aztertzeko erabil daitekeenik:

(7) Ze zabize, neuri *vacilaten*

(8) Joe *emocionaten* naz apur bet e

Hain zuzen, interesgarria da bi adibide hauek, eta zehazki horietan lehena Poplackek emandako eta MacSwanek (2000) erabiltzen duen adibide klasikoarekin konparatzea:

(44a) *Juan está eat-iendo

Juan be/ISs eat-DUR

‘Juan jaten ari da’

Bi kasuetan (7) eta (44a), alternatutako elementua aditz erro bat da eta flexio morfologikoa gehitu zaio aspektu duratiboa edo jarraia adierazteko. MacSwanen arabera, (44a) ez da gramatikala *eatiendo* hitzak hizkuntza diferentetako material fonologikoa daramalako eta honen ondorioz deribazioak huts egiten duelako Spell Out-ean, morfema bakoitza ezin delako PF ezberdinetan gauzatu aldi berean. Euskara eta gaztelaniaren kasuan, baina, (7) zuzena eta onargarria da.

Bada, hala ere, (7) eta (8) moduko adibideak PFIC hipotesiaren baitan ulertzeko beste modu bat; azken hamarkadetako hizkuntza kontaktua eraginaren ondorioz /θ/ fonema euskal sistema fonologikoaren parte dela ondorioztatu ahalko litzateke. Hain zuzen, Oñederra et al-ek (2015) elebitasun goiztiarraren eraginez azken belaunaldietan hasitako eta oraindik martxan den aldaketa fonologikotzat hartzen dute fonema honen erabilera euskararen. Ildo honetan, lan honek aldaketa fonologiko hori baieztatuko luke. Aterabide honek, baina, ez luke azalduko zergatik kasu gehienetan fonema berri horren orde euskarazko /s/ fonema azaltzen den, egokitzapena gauzatu; /θ/ euskal fonemako kontsonantea balitz sistema bereizi eta zurrun batean, /θ/ > /s/ ez litzateke emango, baina hitzun eta testuinguru berberetan bi fonemak tartekatzen dira.

Hitz azentuari dagokionez, zailagoa dirudi aurkitutako emaitzentzat antzeko azalpen bat ematea hizkuntza aldaketa oinarri hartuta, kasu honetan euskarak eta gaztelaniak bateragarriak ez diren ezaugarri fonologikoak baitituzte. Bi ezaugarriak kontuan harturik, MacSwanek proposatutako alternantziaren ikuspegi minimalista mantendu nahi izanez gero euskara eta gaztelaniaren kasurako, bi PFen arteko interakzio maila bat onartu beharko litzateke eta are MacSwanek aipatzen duen PF guztiz bereizien ideia alboratu. Hain zuzen, euskara eta gaztelania moduko hizkuntza berdintsuetarako (fonologiaren aldetik) bi PF interfaze izatea baino sinpleagoa eta zentzuzkoagoa litzateke bakarra izatea eta bertako material eta arau fonologiko gehienak partekatua izatea. Ikuspegi hau hainbat

lanetan aurki dezakegu fonologia eta hizkuntza jabekuntza ikertzen duten autoreetan, tartean Oñederra et al-en: “Oro har ematen du elebidun goiztiarrek ez dituztela fonema inbentario bereziak, baizik eta bereganatu dituzten hizkuntza bien unitateak biltzen dituztela, eta unitate horiek erabiltzen dituztela hizketa bahetzeko oharrenaren bidez” (2014). Iruditzen zaigu mota honetako proposamen batek hobeto azalduko lituzkeela hemen aztertu ditugun alternantzia kasuak eta hizkuntza kontaktuen ondoriozko aldaketa prozesuak, sistema fonologikoen arteko (edo baitako) interakzio edota interferentziak azaltzeko bidea erraztuko luke eta.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Lan honetan gaztelaniazko bi ezaugarri fonologiko aztertu dira hitz-barneko KA kasuetan. Azterketa honetatik atera diren emaitzak eta ondorioak balioztatzeko, baina, beharrezkoa litzateke ezaugarri fonologiko horien azterketa sakonagoa egitea eta bestelako aldagai batzuk kontuan izatea. Adibidez, KA estigmatizatutako praktika denez gero, jakin beharko litzateke hizkuntza jarrerak eta identitateak zer puntura arte baldintzatzen duen /θ/ ala /s/ fonema ekoiztea. Horrez gain, gaztelania eta euskararen KAn nahasten diren bestelako ezaugarri fonologiko batzuk ere ikertu beharko lirateke, hemen aurkeztutako emaitzekin bat datozen ikusteko. Hartara, bereziki interesgarria litzateke gaztelaniaz haratago, euskara eta frantsesaren arteko KA ere aztertzea ikuspegi fonologiko berberetik. Jakina da euskara eta frantsesaren artean ezberdintasun fonologikoa handiagoa dela gaztelaniaren kasuan baino, eta orain arteko lanek erakusten dute posible dela, adibidez, frantses bokal sudurkariak mantentzea euskarazko jardunean maileguen kasuan (Oñederra et al., 2014).

Modu honetan, KAn azterketa baliatu ahal izango litzateke euskarak bizi dituen fonologia mailako aldaketak hobeto ezagutzeko. Bestalde, ikerlerro honek ikuspegi berri bat ekarriko luke KAn eta elebitasunaren azterketa orokorrera, bi hizkuntzen fonologiak aldi berean nola erabiltzen diren ikertzeko datu adierazgarriak eskainiko lituzke eta. Hau ikusita, iruditzen zaigu azpimarratzekoa dela KAn azterketak fenomeno linguistiko orokorragoei buruz datu berriak emateko duen gaitasuna. Horretarako, baina, beharrezkoa litzateke KAn azterketa beste arlo batzuetako ikerlanarekin uztartzea, hala nola fonologian, hizkuntzaren jabekuntzan eta hizkuntzaren prozesamenduan egiten den lanarekin.

6. Erreferentziak

- Chan, B. H. (2003), Aspects of the Syntax, the Pragmatics, and the Production of CodeSwitching. Cantonese and English, *Berkeley Insights in Linguistics and Semiotics*, 51 (2), Peter Lang, New York.
- Chomsky, N. (1995): *The Minimalist Program*, MIT Press, Cambridge, MA.
- Di Sciullo, A.M., Muysken, P. eta Singh, R. (1986), Government and code-switching, *Journal of Linguistics*, 22, 1-24.
- Elordui, A. (2016), Elebakartasunetik heteroglosiara: Gaztea Irratia, bernakulizazioa gazte-komunikabideen diseinu sozioestilistikoan, *Uztaro*, 97, 31-52.
- Epelde, I. eta Oyharçabal, B. (2010), Perpaus barneko hizkuntza lerratzeak (HL) ekialdeko euskal elebidunetan, *ASJU*, 52, 55-64.
- Ezeizabarrena, M. J. (2014): Kode alternantzia elebidun txikien hizkuntzak bereizteko gaitasunaren adierazgarri, in Ezeizabarrena M.J. eta Gómez, R., *Eridenen duzu zerzaz kontenta. Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 207-225.
- Hualde, J.I. (2003): From phrase-final to post-initial accent in Western Basque, in P. Fikkert and H. Jacobs, *Development in prosodic systems*, Mouton de Gruyter, Berlin, 249-281.
- Iriondo, A. (2017), Kode-alternantzia elebidun gazteetan: DS nahasiak, *Gogoa*, 16, 25-56.
- Joshi, A. (1985): Processing of sentences with intrasentential code switching, in David R. D., Lauri K., eta Arnold M.Z., *Natural language parsing: Psychological, computational and theoretical perspectives*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Jake, J, Myers-Scotton, C. eta Gross, S. (2002), Making a minimalist approach to codeswitching work: Adding the Matrix Language. *Bilingualism: Language and Cognition* 5 (1), 69-91.
- López, L., Alexiadou, A. eta Veenstra, T. (2017), Code-Switching by Phase, *Languages*, 2 (3), 9.
- MacSwan, J. (2000), The architecture of the bilingual language faculty: evidence from intrasentential code switching, *Bilingualism: Language and Cognition*, 3 (1), 37-54.

- (2005), A Minimalist Approach to Intrasentential CodeSwitching, *Italian Journal of Linguistics*, 17, 55-92.
- MacSwan, J. eta Colina, S. (2014): Some consequences of language design: Code switching and the PF interface, in MacSwan, J., *Grammatical Theory and Bilingual Codeswitching*, MIT Press, Cambridge, MA, 185–200.
- Mahootian, S. (1993): *A Null Theory of Code-Switching*, Ph.D dissertation, Northwestern University.
- Myers-Scotton, C. (2001): The matrix language frame model: Developments and responses, in Jacobson, R., *Codeswitching worldwide II*, Mouton de Gruyter, Berlin, 23-58.
- Muysken, P. (2000): *Bilingual Speech*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Oñederra, M.L., Jauregi O. eta Epelde, I. (2014), Hitzunaren fonema inbentarioa eta elebitasun goiztiarra: euskara gehi frantsesa vs. euskara gehi gaztelania, *Lapurdum*, 18, 75-95.
- Oñederra, M.L. (2004): *Fonetika fonologia hitzez hitz*, EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Poplack, S. (1980), Sometimes I'll start a sentence in spanish y termino en español, *Linguistics*, 18, 581-618.
- Poplack, S. eta Sankoff, D. (1981), A formal grammar for code-switching, *Papers in Linguistics*, 14, 3-45.